

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2022/2023 ikasturtea

**DOLUA ETA HERIOTZA LEHEN HEZKUNTZAN:
irakasleen begiradaren ikerketa eta esku-hartze baten proposamena**

ERANSKINAK

Egilea: Ariane Romón Fonseca

Zuzendaria: Joana Jaureguizar Alboniga-Mayor

Leioan, 2023ko maiatzaren 31an

6. Eranskinak

6.1. Eranskina: Lehen Hezkuntzako Irakasleentzako Baliabide Pedagogikoen Zerrenda

Hona hemen Poch eta Herreroen (2003), De la Herrán eta Cortinaren (2008) eta Rodríguez et al., (2015b) lanetatik hautatutako baliabide didaktiko batzuk, horien garrantziari buruz Lehen Hezkuntzan bilatutako informazioarekin eta beste baliabide zehatzagoekin batera.

- Brainstorming: ideia-zaparradak anima ditzake ikasleak askatasun eta sormen handiagoz pentsatzera, aukera ematen die dakitena gogoratzeko eta gai batera eramateko modu dinamiko eta bizigarria da.
- Musika, plastika, artelanak eta emozioak: arteak, dramatizazioak, musikak edota eskulanek emozioak askatzeko bideak aktibatu ditzakete. Izan ere, Fernández (2017) erran bezala, sentimenduekin konektatzeko, hauek adierazteko zein hitzik gabe etiketatzeko tresna indartsuak dira.

Kantak:

- Maite zaitut amatxo - Pirritx eta Porrotx
- Zaintxo - Txirri eta Mirri
- Katuaren testamendua - Oskorri
- Txuriko - Txomin Artola
- Nire herriko neskatxa maite - Benito Lertxundi
- Kantuz - Benito Lertxundi
- Ez nau izutzen - Mikel Laboa
- Izarren Hautsa - Mikel Laboa
- Nahiz eta heriotza - Mikel Laboa
- Maitia nun zira - Dulce Pontes, Kepa Junkera, Imanol Larzabal, Anne Etxegoien, Amaia Zubiria, Estitxu eta Kalakan
- Ez nazazu utzi - Lurdes Iriondo
- Xalbadorren heriotzean - Xabier Lete
- Agur Jauna - Ezezaguna

Artelanak:

- Danza macabra de la iglesia - San Nicolás de Tallin, de Bert Notke (1475-99)

- El triunfo de la Muerte - Pieter Brueghel (1562-63)
- Las tres edades y la Muerte - Hans Baldung (1541-44)
- El beso de la Muerte - Jaume Barba (1930)
- El ángel de la muerte - Domenico Morelli (1897)
- La joven y la muerte - Henry Lévy (1900)
- Muerte y vida - Gustav Klimt (1910)
- Jolasa: jarduera ludikoa haurren interesetara egokitzen da eta haien arabera eboluzionatzen du. Jarduera atsegina denez, estimulu eta motibazio gisa balio du, eta, beraz, ikaskuntza-prozesua bizkortzen du. Gainera, jolasa bere egituragatik, balioak eskuratzea errazten du eta norbanakoaren prestakuntzan laguntzen du, hala nola, norbere burua orekatuz eta menderatuz (Prieto, 2010).
- Tailerra: Mayaren (2007) iritzia plazaratuz, tailerra modu pedagogiko berri bat da, teoria eta praktika integratzea lortu nahi duena. Horregatik, tailer pedagogikoa bide egokia da ikasleari ezagutzan jarduteko aukera ematen dioten ohiturak, trebetasunak eta gaitasunak prestatzeko, garatzeko eta hobetzeko. Gogoeta- eta ekintza-eremu bat da.
- Ipuinak: ipuina bide bat da Lehen Hezkuntzako etapako edozein eduki lantzeko, izan ere, Betthelheim-en arabera (2002), istorioan zehar egiaztatu da ipuinen egituragatik eta umearengandik hurbil dauden gaien lanketagatik, errealitatea ulertzen laguntzen diotela. Horrela, eragin diezaioketen barne-gatazkak konpontzeko narrazioak erabakiak hartzen lagunduko dio.
 - Nora joan da aitona? - Alaine Agirre
 - Estirar la pata o cómo envejecemos - Babette Cole
 - Miss Txatarra - Xabier Mendiguren
 - Aitatxo balkoian dago - Seve Calleja
 - Hiltzen bazara, ikusiko duzu - Seve Calleja
 - Hamabi galdera pianoari - Juan Kruz Igerabide
 - Amona bizikletan - Joxan Ormazaba
 - Aitonaren txalupan - Mariasun Landa
 - Hili - Uxue Alberdi eta Araiz Messanza

- Zinema: ikus-entzunezko komunikazioak eragina du Lehen Hezkuntzako ikasleen eguneroko bizitzan, baita pentsatzeko eta ideiak hautemateko moduan ere. Zinemak ikasleen komunikaziorako, pentsamendu logikorako eta ingurune sozial eta naturala ezagutzeko gaitasunak garatzen laguntzen du. Gainera, aukera asko eskaintzen ditu lan egiteko orduan, hainbat gaietara buruz gehiago jakiteko gogoia piztu dakieke ikasleengan (Peréz, 2010).
 - Bambi
 - Up
 - Frankenweenie
 - Big Hero 6
 - Coco
 - Del revés
- Antzerkia eta role playing: antzerkiak gorputzaren adierazpena, oroimena, espazioaren zentzua edo sentiberatasun artistikoa bultzatu nahi ditu. Antzerkiaren barruan, role-playinga teknika moldakorra da, hau da, testuinguru desberdinetara egokitzeak aukera ematen du eta horri esker ikasleak gatazkak konpontzen hasi daitezke (Agüero, 2007).
- Ikerketak: hezkuntzan ikertzeko beharra sortzen da egoera baten funtzionamendua hobeto ezagutu nahi denean edo egiten diren galdera ugarietara erantzun nahi zaienean. Ikerketaren erabilera aukera metodologiko bat da, ikasleek gai bat hobeto ezagutu eta uler dezaten (Gil, 2014).
- Teknika narratiboak: interakziorako, pentsamendurako eta komunikaziorako bitarteko teknika da.

6.2. Eranskina: Esku-hartzearen Jardueren Sekuentzia

HASIERAKO FASEA

Lehenengo atala: heriotza

1. Jarduera: nola begiraten diogu heriotzari?				
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotzaren kontzeptua eta horri buruzko pertzepzioa. 			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikasleek heriotzari buruz dituzten aldez aurreko ideiak ezagutzea. • Haurraren adierazpenerako kanalak irekitzea, edozein motatako adierazpenak errespetatuz, adierazpen eza barne. • Arteak norberaren ideiak komunikatzeko eta adierazteko ematen dituen aukera ugarietaz ohartzea. • Ikasleek heriotza irudikatzeko moduak ezagutzea. 			
Irakasgaia Plastika	Lekua Plastika gela	Iraupena 60 minutu	Materiala Fitxak, boligrafoa, margoak, errotulkiak, akuarelak...	Taldekatzea Banaka
Deskribapena	<p>Hasteko, gaiarekiko hurbilketa egiteko eta ikasleek heriotza nola ikusten duten ezagutzeko 6.3.1. Eranskinean dagoen fitxa bete beharko dute. Fitxa bi ataletan zatitzen da, alde batetik haurrek hitz zerrenda bat aurkituko dute eta heriotzarekin erlazionatzen duten 4 hitz hautatu beharko dituzte. Bestetik, ikasleek egindako hitz hautapena arrazoitzeko, taula bat bete beharko dute azalduz heriotza hitza entzuterakoan burura etortzen zaizkien irudiak, sentimenduak eta pentsamenduak.</p> <p>Behin fitxa hori beteta eta hortik abiatuta, hurrengo jarduera egitea planteatzen da; izan ere, erakusketa bat bisitatzea beti da plazer estetikoaz gozatzeko eta erakusketaren gaiak hausnartzeko aukera. Baina askotan ez dago behar adina denbora erakusketa batera joateko edo ez da aurkitzen landu nahi den gaiari egokitzen zaion bat. Orduan,</p>			

	<p>erakusketara joatea ezinezkoa bada, erakusketa etorraziko da. Horregatik, ikasgelan heriotzari buruzko erakusketa bat sortuko da eta horretarako, ikasleei 6.3.2. Eranskinean aurkitzen den mezua helduko zaie.</p> <p>Azkenean, ikasle guztiek bere obrak egin dituztenean, irakasleari emango diote.</p>
<p>Ebaluazioa</p>	<p>Ebaluazioa burutzeko Metakognizioaren Eskaileraren teknika erabiliko da. Horretarako, irakasleak hurrengo galderak botako dizkie ikasleei:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Nola sentitu naiz? ● Zeintzuk izan dira zailtasunak? ● Zertarako balio izan dit? ● Berria izan da niretzako? <p>Galdera hauen helburua ikasleen hausnarketa pertsonala bideratzeaz gain, ikasleak heriotzaren kontzeptuan barneratu diren ezagutzea litzateke.</p>

2. Jarduera: heriotza gure etsai?				
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> ● Heriotza. ● Bizikidetzeta, komunikazioa eta asertibitatea. 			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ● Sentikortasuna eta errespetua adieraztea norberaren eta besteren bizipen estetikoaren adierazpenekiko. ● Ikaslea heriotzaren kontzeptuan murgiltzea. ● Ikasleek heriotza naturalizat eta bizitzaren zatitzat ulertzea. ● Ikasleek heriotzarenganako duten pertzepzioaz kontziente izatea. ● Guztien iritziak entzun, errespetatu eta balioetsi daitezen sustatzea. 			
Irakasgaia Euskera	Lekua Ohiko gela	Iraupena 60 minutu	Materiala Ipuina eta bi orri	Taldekatzeta Banaka eta talde handia
Deskribapena	<p>Irakasleak saioa hasi baino lehenago, ikasleek emandako obrak, korda eta pintza batzuk erabilia, klasean zintzilikatuko ditu. Ikasleak klasera sartuko dira eta momentu horretan irakasleak azaldu beharko die erakusketa baten aurrean daudela eta beraz, museoetan gertatzen den moduan, ilustrazioak ikusi bitartean isiltasuna nahi duela, horien ezaugarriak eta hashtag-ak arretaz aztertzeke.</p> <p>Ilustrazioetatik egindako ibilbidea bukatzerakoan, ikasleek 6.3.3. Eranskinean dagoen fitxa beteko dute. Modu honetan, hots, irudi baten xehetasunak behatuz, haiei buruz pentsatuz, interpretatuz eta galderak eginez, ikasleei funtsezkoa den pentsamendu-trebetasuna garatzen laguntzen ari zaie.</p> <p>Ondoren, ikasleei borobil batean esertzeko eskatuko zaie eta obra guztiak amankomunean dituzten ezaugarriengatik galdegingo zaie, hala nola, koloreak, formak, irudikatzeke moduak, definitzeko moduak... eta obra horiek zer sentazio transmititu dizkien.</p> <p>Segur aski denek heriotza kolore ilunekin islatu izan dutela, orduan</p>			

	<p>heriotza irudikatzeneko moduak aztertu direla, ikasleei heriotza beti konnotazio negatiboak izan ohi dituela jakinaraziko zaie. Hori esanda, umeei borobilean eserita jarraituko dute eta irakasleak “Jakes eta Herio” ipuina (ikus 6.3.4. Eranskina ipuinaren nondik-norakoak ulertzeko) klase osoari ozen irakurriko dio.</p> <p>Horren ostean, ikasleak hausnartzen, elkarreragiten eta beren ikuspuntuak erakusten hastea bilatuko da, ipuina entzun ondoren beraiei iritsi zaien mezua zein izan den zeharka helarazteko. Horretarako, irakasleak ipuinari buruzko galderak botako die ikasleei. Gela bitan banatuko da, gelako alde batean “Bai” hitza paper handi batean margotuta egongo da eta beste aldean, berriz, “Ez” hitza. Hori kontutan hartuta, ikasleak galderei erantzuteko gelako alde batera desplazatu beharko dira eta erantzun berdina aukeratu dutenen artean hitz egin haien posizioa argudiatzeko.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Herio atzipetzea, ondorio txarrak ditu? <ul style="list-style-type: none"> ○ Arrazoitu zuen erantzuna hurrengo galderarekin: zeintzuk dira ondorio txar horiek? ● Herio gaiztoa balitz moduan aurkezten da? <ul style="list-style-type: none"> ○ Aztertu hurrengo esaldia: <i>“Beharbada orain ulertuko duzu ez naizela bizitzaren etsai. Txanpon beraren bi aldeak gara: ni gabe, bizitzarik ez”</i>. <ul style="list-style-type: none"> ■ Heriotza egoteko bizitza beharrezkoa da? ■ Bizitza egoteko heriotza egotea beharrezkoa da? ● Heriotza bizi-zikloaren etapa bat da? <ul style="list-style-type: none"> ○ Jaiotza zerbait txarra da? ○ Haztea zerbait txarra da? ○ Ugaltzea zerbait txarra da? ○ Heriotza zerbait txarra da? ● Orduan, heriotza gure etsaia da?
<p>Ebaluazioa</p>	<p>Ikasleen erantzunei arreta jarriko zaie deskribatutako helburuak edo ez bete diren ikusteko.</p>

3. Jarduera: zergatik?				
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> ● Heriotza eragin dezaketen kausak. ● Inguruneko pertsona hurbilekin elkarrizketarako harreman irekia izatea. ● Autonomia arduratsua agindutako zereginak egitean. 			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ● Pertsonen heriotza eragin dezaketen zergati ezberdinak ezagutzea. ● Idatzizko zein ahozko azalpen- eta informazio-testuak koherentziaz eta ordenaz adieraztea eta sortzea, hizkuntza egokia erabiliz eta gainerako ikaskideak aktiboki entzunez. 			
Irakasgaia Ingurune	Lekua Ohiko gela	Iraupena 60 minutu	Materiala Orria eta boligrafoa	Taldekatzea Banaka eta talde handia
Deskribapena	<p>Klaseari hasiera emateko, aurreko jarduerako Jakes eta Herio ipuina gogora ekarriko da hurrengo galderen inguruan hitz eginez “<i>zer gertatuko litzateke inor hilko ez balitz?</i>”, “<i>ze ondorio txar zituen Herio atzipetzeak?</i>”</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Jack janari bila hasi zenean, animaliak ez zirela hiltzen eta barazkiak ezin zirela baratzetik irten. ● Egunak aurrera zihoazen eta ez zen ezer hiltzen, gero eta gose handiagoa zuten denek. ● Eta, gainera, gero eta gehiago ziren, euli gehiago, arkakuso gehiago... <p>Hortik abiatuta, heriotzaren naturaltasunean sakontzeko honako jarduera proposatzen da, baina jarduera klasean aurrera eraman ahal izateko, ikasleei lehendik eskatuko zaie haien arbasoen inguruko informazioa jasotzea: izena, jaiotza-eguna, jaiolekua eta bizirik ez egotekotan, heriotza eguna eta heriotzaren zergatia. Bildutako informazio horrekin ikasle bakoitzak bere familiaren zuhaitz genealogikoa burutuko du, karratu bakoitzaren barnean eskuratutako informazioa jarriz. Ikasleei</p>			

	<p>adibide bat emateko, 6.3.5. Eranskinekoa erabili daiteke.</p> <p>Behin zuhaitzak eginda, zuhaitz genealogiko guztietan hildakoak egongo dira; hortaz, guztien artean heriotza sor dezaketen arrazoi ezberdinei buruz hitz egingo dute.</p>
<p>Ebaluazioa</p>	<p>Amaitzerakoan, irakasleak ikasleek egindako fitxak batuko ditu eta ondorengo adierazleetan oinarrituko da ikasleak ebaluatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Fitxa eskatutako informazioarekin bete da. ● Informazioa argitasunez adierazi da. ● Oinordekoen bizitza ezagutu du. ● Heriotza eragin dezaketen faktoreak eta zergatiak ezagutu ditu.

GARAPEN-FASEA

Bigarren atala: dolua eta emozioak

4. Jarduera: dolua, heriotzaren sendagailua				
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> ● Dolua. ● Galera. ● Talde lana, konpromisoa eta erantzukizuna. 			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ● Dolua lantzea eta prozesu naturala dela ohartzea bideoipuin baten bitartez. ● IKTen erabileraren bidez doluaren faseen ikerketa sustatzea eta pentsamendu kritikoa garatzen laguntzea. ● Dolua ikuspegi ezberdinetatik hausnartzea, dolua ez dagoela soilik heriotzarekin lotuta ulertzeko. 			
Irakasgaia Euskera	Lekua Ohiko gela	Iraupena 60 minutu	Materiala Proiektorea, fitxa, boligrafoa eta ordenagailua	Taldekatzea 3-4ko taldeak eta talde handia
Deskribapena	<p>Irakasleak hurrengo informazioa emango die ikasleei: <i>“Aurreko saioetan heriotza naturala eta saihestezina dela ikusi arren, jakingo duzuenek, ez die inguruko pertsonen sufrimendua saihesten. Horregatik, pertsonak dolutik pasatzen dira, dolua galeraren aurrean dauden erantzunak dira”</i>.</p> <p>Hori hobeto ulertzeko, irakasleak Pirritx, Porrotx eta Marimotots bideo-ipuina jarriko die: https://www.youtube.com/watch?v=0Q0BKihJgbc&t=9s</p> <p>Bideo-ipuina ikusita, ikasleei 6.3.6. Eranskinean dagoen fitxa bat emango zaie, bertan lehenik eta behin, doluaren faseak zerrendatuta agertuko dira eta taldeetan, horiei buruzko informazioa bilatu beharko dute. Behin bilatutako informazioarekin taula bete dutelarik, bilatutako informazioa praktikan jartzeko eta ulertu duten ikusteko, taldeetan bideo-ipuineko protagonista zein faseetatik pasa den argudiatu beharko</p>			

	<p>dute.</p> <p>Talde guztiek fitxa bete dutelarik, irakasleari emango diote eta saioa ixteko, taldeetan hurrengo galderaren inguruan hitz egiteko eskatuko da, amaieran talde handian komentatzeko:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Orain dolu bateko faseak ezagutzen dituzuela heriotza galera bat da, baina galera bakarra da? Noiz gehiago bizi dezakezue dolu bat? Zerrendatu <p>Ikasleen parte-hartzea bultzatzeko, irakasleak eraman dezake inizatiba adibide bat jarritz, hala nola: gurasoak banantzerakoan, urrun bizi den edo udan egindako lagun batetik aldentzerakoan, garrantzitsutzat jotzen den zerbait galtzerakoan edota bizileku aldaketa bat dagoenean. Irakasleak jarritako adibidearekin denen artean fase horietatik pasa zitekeen konprobatu dezakete, modu honetan ikasleak ohartuko dira dolua eta heriotza ez direla gauza bera eta ez dela beharrezkoa izaki bizidun bat hiltzea dolu-prozesutik pasatzeko.</p>
<p>Ebaluazioa</p>	<p>Ebaluazio burutzeko, 6.3.7. Eranskineko errubrika erabiliko da oinarri moduan.</p>

5. Jarduera: emozio dependienteak				
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> ● Emozioak. ● Kontzientzia eta errespetua. ● Gorputz adierazpena. 			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ● Emozioen garrantzia hautematea. ● Antzerkia era pertsonal eta arrazoituan sortzea egoerak, emozioak eta ideiak adierazteko eta komunikatzeko. ● Emozioak modu askotara adieraz daitezkeela ohartzea. 			
Irakasgaia Euskera	Lekua Ohiko gela	Iraupena 90 minutu	Materiala Orriak eta boligrafoak	Taldekatea Banaka, talde handia eta 3-4ko taldeak
Deskribapena	<p>Dolu prozesuarekin jarraituz, jakina denez dolu prozesu batean normala da pertsona bakoitza modu desberdinean erreakzionatzea, eta hainbat emozio sentitzea. Saio honetan, emozioen garrantziaz eta beharraz jabetzeko, irakasleak egoera batzuk ozenki irakurri die eta galdera batzuk egingo ditu banaka orri batean erantzuteko. Modu zeharkan, ikasleek dolu prozesu batekin erlazionatutako emozioak ezagutuko dituzte. Hona hemen egoerak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Izaro basotik doa paseo bat ematen. Bat-batean otso handi bat ikusten du. Zer sentituko du? (beldurra). Eta zer egingo du? (ihes egin, korrika egin...). Zer gertatuko zen Izarok beldurra sentituko ez balu? (Otsoak jango zuela/hilko zela). ● Julen panpinekin jolasten dabil. Baina, momentu batean bere lagunak galdetu gabe panpina kentzen dio. Zer sentituko du? (haserrea/tristura) Eta zer egingo du? (eskatu/kexatu). Eta haserrikerik gabe, zer gertatuko litzateke? (panpinarik gabe geldituko zela). ● Alaitz futbol partida bat jolasten ari da. Bere alboko lagunak, atezainaren aurrean bakarrik dagoela baloia pasatzeko eskatzen 			

	<p>dio, baina Alaitzek ez dio kasurik egiten eta bere taldea berarekin haserretzen da. Zer sentituko du? (errua). Eta zer egingo du? (barkamena eskatu). Eta errurik gabe, zer gertatuko litzateke? (ez zuela barkamenik eskatuko eta bere taldea haserretuta jarraituko zuela)</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Aitorrek jostailu berri bat erosteko eskatzen die bere gurasoei. Baina, gurasoek ezetz esaten diote, ezin diotela une oro desiratzen duen guztia erosi. Zer sentitzen du? (frustrazioa). Zer egingo du? (negar egin). Zer gertatuko litzateke frustrazioa ez sentitzekotan? (Aitorrek ez zuela ikasiko bizitzan limiteak daudela). <p>Ondoren, denon artean emozioen beharraren inguruan komentatuko da, horretarako irakasleak galdera hauek plazaratuko ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Orduan, emozioak beharrezkoak dira? ● Zergatik? ● Zer gertatuko litzateke ezer sentituko ez bagenu? ● Garrantzitsua da emozioak identifikatzea eta horiek lantzea ezta? Frustrazioaren adibidea jarriko da, baliteke ulertzeko zailena izatea eta. Ikasleei azalduko zaie frustrazioa emozio baliagarria, beharrezkoa eta garrantzitsua dela, funtsezko eginkizuna betetzen duela mundura egokitzeko eta besteekin harremanetan jartzeko. Horrez gain, ez dela kudeatzeko erraza jakinaraziko zaie, baina mugak ulertzen laguntzen duela, zein diren bakoitzarenak eta besteenak. Izan ere, frustrazioa jasaten ikasteak harreman sozial egokiagoak ezartzen laguntzen du. Norbaitek ezezko bat onartuko ez balu, edo dena bere nahien arabera izatea nahiko balu, nor biziko litzateke berarekin? ● Orain zuek hitz egindako emozioen artean bat hautatuko beharko duzue eta emozio hori bizi dezakezuen egoera berri bat pentsatu eta paperean bertan idatzi. <p>Bukatzeko, taldeka emozio bat esleituko zaie eta horren errepresentazioa egin beharko dute. Kontua da, talde guztiei emozio bera egokituko</p>
--	---

	<p>zaiela eta ondorioz, emozio bera hainbat modutan antzeztuta ikusiko dute. Honen helburua da, amaieran hausnarketa bat bultzatzea eta ohartzea emozio berdinen aurrean egonda ere, pertsona edo talde bakoitza hori nola bizi eta transmititzen duen desberdina dela.</p>
<p>Ebaluazioa</p>	<p>Irakasleak ikasleek banaka betetako orrian emozioak zehaztasunez eta haien izenekin identifikatzen dituzten behatuko du; debatea ikasleek emozioen garrantziaren inguruko kontzientzia garatu duten edo ez jakiteko erabiliko du; eta antzerkian, ikasleek emozioak hitzezko eta gorputzezko hizkuntzaren bidez nola adierazten dituzten arretaz begiratzeaz gain, geroko hausnarketan ikasleak emozioak bizitzeko modua pertsona-pertsonaz aldatzen dela ohartu diren behatuko du.</p>

6. Jarduera: zure oinetakoetan jartzen naiz				
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> ● Enpatia. ● Besteen mezuak interes eta errespetuarekin entzuteko prestasuna. 			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ● Enpatiari buruz dakitena ezagutzera ematea. ● Enpatiaren garrantzia baloratzen ikastea. ● Harremanak eta komunikazioa lantzea pertsonekin. ● Besteen sentimenduak eta emozioak aktiboki entzun eta taldean egon daitezkeen desberdintasunak eta gatazkak lantzea, bizikidetzaren oneko, errespetuko eta tolerantziako jarrerak indartuz. 			
Irakasgaia Tutoretza	Lekua Ohiko gela	Iraupena 60 minutu	Materiala Artilea, proiektorea, kaxak, orriak eta boligrafoak	Taldekatzea Taldea handia eta 3-4ko taldeak
Deskribapena	<p>Doluaren faseak aztertuta, emozioen beharra ezagututa eta emozioak transmititzeko modu ezberdinak daudela ikusita, gainerako pertsonen egoera horien aurrean zer egin dezaketinari buruzko estrategiak landuko dira, hain zuzen ere, enpatiaren lanketan sakonduko da.</p> <p>Beraz, hasteko, debate bat sortuko da klasean, ikasleak haientzako enpatia zer den azalduz. Hori aurrera eramateko, “armiarma-sarea” dinamika ospetsua erabiliko da. Klaserako, artilezko hari bat besterik ez da behar, eta haur guztiak zirkuluan eseriko dira. Irakaslea hasten da, hari hartzen du eta bere iritzia ematen du. Ondoren, hariaren punta bat hartu eta ausaz haur bati hari pasatzen dio, honek gauza bera egin dezan. Horrela, ikasle guztiak haien iritzia eman arte. Aurkezpen guztiak amaitzean, armiarma sare bat sortuko da haur guztien artean.</p> <p>Ikasleek haien enpatiari buruzko haien ikuspuntua eman dutela, bideo bat ikusiko da non enpatia zer den eta horri buruzko adibideak ematen</p>			

	<p>diren: https://www.youtube.com/watch?v=q9wd09wkkCs</p> <p>Bideo hori ikusita, ulerkuntza maila behatuko da aurreko saioan ikusitako bideo-ipuinean enpatia non ikusten duten galdetuz (bideoa berriz ikusiko da).</p> <p>Amaitzeko, errutina bat azaldu eta praktikan jarriko da ikasleekin. Txartelak dituen zapata-kaxa bat utziko da klaseko apal batean, haurrek egunean zehar sentitu dituzten ondoezak idatz ditzaten. Horren ondoan, beste zapata-kaxa bat egongo da “Zure oinetakoetan jartzen naiz” izenburuarekin. Helburua da, egunean zehar haur bakoitzak ausazko txartel bat hartzea, bere baitarako irakurtzea eta irtenbide edo iruzkin atsegin bat proposatzea eta bigarren kaxa horretan sartzea. Astero tutoretza orduetan, 10-15 minutu eskainiko zaio irtenbideak proposatzen dituzten txartelak hartzeari, irakurtzeari eta klase handian komentatzeari.</p> <p>Baina ikasleak hobeto ulertzeko, esan bezala, praktikan jarriko da. Irakasleak hainbat arazo planteatuko ditu eta taldeetan jarrita horiei aurre egiteko estrategiak luzatu beharko dituzte. Horiek horrela, arazo edo egoera ezkorrak hurrengoak izango dira (arazoak haien testuinguru hurbilekoak izatea komeni da):</p> <ul style="list-style-type: none"> ● “Izarok ostikada bat eman dit futboleak jolasten ari ginenean eta ez dit barkamena eskatu, oso haserre nago”. ● “Taldean ezkutaketara jolasten ibili dira eta niri ez didate parte hartzen utzi. Baztertuta sentitu naiz”. ● “Klase-kideek bizkarretik nitaz hitz egiten dutela uste dut, pixkat triste sentitzen naiz”. ● “Irakasleak ez du nire esfortzua baloratu eta amorratuta nabil”. ● “Lagun bat iraindu dut eta ordutik txarto sentitzen naiz”. <p>Klasean estrategia guztiak ozenki irakurriko dira saioari bukaera emateko.</p>
<p>Ebaluazioa</p>	<p>Jarduera honen ebaluazioa egiteko, ikasleen erantzunak zein jarrerak</p>

	<p>behatuko dira. Azken finean, deskribatutako jarduera hauek ez dira ikuspegi kuantitatibotik ebaluatuko, baizik eta xedea ikasleei buruzko informazioa jasotzea da, horregatik jarrerazko helburuak eta edukiak ikasleen jokabideak zuzenean behatuz ebaluatuko dira, horiek modu naturalean eta espontaneoan garatzen baitira. Ikasgelan parte hartzen duten eragileen arteko harremanek (ikasleak eta irakasleak) eta jarduerak berak, jarrerazko jokabide ugari ekarriko dituzte: parte-hartzea, lankidetzak, tolerantzia, ikaskideekiko, irakaslearekiko, materialarekiko eta instalazioekiko errespetua...</p>
--	---

Hirugarren atala: kulturartekotasuna

7. Jarduera: kulturartekotasuna, denon ondasuna				
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotza bizitzeko beste moduak. • Informazio-iturrien eta informazioaren beraren egokitasuna ebaluatzea. 			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Heriotzaren unibertsaltasuna aztertzea, IKTen bidez gaiari buruzko ikerketak sustatuz. • Norberak partekatzen ez dituen heriotzaren inguruko sinesmenak ezagutzea eta errespetatzea. • Talde-lana bultzatzea. • Bildutako informazioa argitasunez ezagutzera ematea. 			
Irakasgaia Euskara	Lekua Ohiko gela	Iraupena 90 minutu	Materiala Irudiak, ordenagailuak, kartulinak eta errotulkiak	Taldekatzea 4 talde
Deskribapena	<p>Aurreko saioetan guztien emozioak eta emozio horiek bizitzeko eta transmititzeko modua errespetatu behar direla eta enpatiaz hitz egin dela aprobetxatuz, kulturartekotasuna gaia jorrazteko momentu egokia da. Izan ere, badaude kulturak, non aurretik landu bezala, heriotza ez duten etsai moduan ikusten, hots, ez dute heriotza tristuraz eta kolore ilunez irudikatze ohiturarik, batzuek bizitzeko poztasuna azpimarratzen baitute, hori dela eta, horri buruzko erritu ezberdinak egiten dira.</p> <p>Hortaz, saio honen bidez, heriotza munduko hainbat ikuspegi eta kulturatik landu nahi da, gaiaren normalizazioa eta tratamendu naturala bultzatuz. Horretarako, Halloween eguna, herrialde honetan nabarmen ezarrita dagoen eguna, aitzaki moduan erabiliko da gaia sartzeko. Beraz, jaiegun horren jatorria azalduko da, hau da, ikasleei galdetuko zaie zer esan nahi duen "Halloween" hitzak. Bere aurretiko ideiak ezagutu ondoren, irakasleak hitza benetan nondik datorren azalduko die. Hitz hori ingelesezko "All Hallow 's Eve" esapidetik dator, eta horren euskarazko itzulpena "Hildako guztien egunaren bezpera" da.</p>			

	<p>Horrez gain, egun horretan egiten denari buruzko informazio esanguratsua eta erakargarria helaraziko zaie.</p> <p>Hori azaldu ondoren, ikasleei erritu desberdinei buruzko 4 irudi jarriko zaie (ikus 6.3.8. Eranskina) eta gela osoa 4 taldetan banatuko da. Talde bakoitzak herrialde bat izango du esleituta, eta bertan heriotza nola bizi den, zer jaiegun egiten diren eta senide bat hiltzen denean zer ohitura dituzten ikertu behar dute, informazio guzti hori poster batean batuz. Posterra egiterako orduan, ikasleei ebaluatzeko erabiliko den errubrika erakutsi (ikus 6.3.9. Eranskina) eta ordenagailuaren bitartez partekatuko zaie, horrela haiek kontutan izateko eta arduraz eta autonomiaz lan egiteko.</p> <p>Amaieran, mural bat sortuko da poster guztiekin eta talde bakoitzak bere posterra talde osoaren aurrean azalduko du.</p>
<p>Ebaluazioa</p>	<p>6.3.9. Eranskinean dagoen ebaluazio errubrika erabiliko da.</p>

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA

Laugarren atala: ulermena, sormena eta ekimena

8. Jarduera: heriotzaren ilustratzaileak				
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> ● Talde-lana norberaren lan gisa bere gain hartzea. ● Erantzukizuna eta elkertasuna taldean lan egitean. 			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ● Esku-hartzean zehar jorratutako kontzeptu guztiak komikian islatzea. ● Galerei eta doluari buruz naturaltasunez eta normaltasunez hitz egiteko ohitura eskuratzea. ● Galera eta dolu testuinguru batean sor daitezkeen egoera eta bizipen ezberdinez jabetu, ondoren egoera erreal bat sortzen den momentuan ezagutzak izan ditzan egoerari aurre egiteko. 			
Irakasgaia Euskera eta plastika	Lekua Ohiko gela	Iraupena 120 minutu	Materiala Orriak, kartulinak, errotulkiak..	Taldekatzea 3-4ko taldeak
Deskribapena	<p>Ikusi bezala, kultura bakoitzean, heriotza hainbat erritu eta ohitura desberdinekin lotuta dago, pertsonen doluaren prozesuan laguntzeko. Errituak prozesatzeko eta dolua adierazteko moduak eskaintzen dizkiete pertsonen. Beraz, hortik abiatuta eta klasean artearen eta ipuinen bitartez gaia landu dela kontutan hartuta, horien konbinazioa egingo da, ikasleek taldeka komiki bat sortuz. Horretarako, beharrezkoa izango da argitzea komikia kontakizun bat osatzen duen irudi-sorta bat dela, testuekin lagundu daitekeena. Komikia baliabide egokia da, izan ere, espazio-denbora irudikatzen laguntzen duen baliabidea denez, eboluzio-prozesuei buruzko azalpenak argitzen lagun diezaieke. Gainera, komikiaren bidez, irakasleak ikasleen errepresentazioak aztertzeko, aurreko jardueretan egindakoarekin alderatzeko eta azken batean, ikasleen aurrerapenak eta garapena behatzeko aukera izango du.</p> <p>Horiek horrela, ikasleek komikia sortzeko hurrengo aspektuak kontutan hartu beharko dituzte:</p>			

	<ul style="list-style-type: none"> ● Galera bat egon behar da (ez da zertan heriotza izan behar). ● Galera heriotza izatekotan, kultura batean kokatuta egon behar da. ● Doluaren faseak agertu behar dira. ● Emozioen bat atera behar da. ● Laguntzeko proposamenak islatu.
<p>Ebaluazioa</p>	<p>Komikia sortzeko eskakizunekin bete den ebaluatuko da 6.3.10. Eranskinean dagoen errubrikaren bitartez. Horrez gain, errubrika horretan komikia egiteko modua ere ebaluatuko da.</p>

OROKORTZE ETA TRANSFERENTZIA FASEA

Bosgarren atala: errefuxiatuak

9. Jarduera: konpon(bideak) eraikitzen				
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> ● Errefuxiatuak. ● Erantzukizun pertsonala eta soziala. ● Pertsona, balio eta kultura desberdinak esanbidez estimatzea. 			
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> ● Eskuratutako baliabide didaktikoak beste egoera erreal batera transferitzeko gai izatea. 			
Irakasgaia Tutoretza	Lekua Ohiko gela	Iraupena 60 minutu	Materiala Ordenagailuak	Taldekatzea Banaka
Deskribapena	<p>Orokortze eta transferentzia fasean, ikasitako ezagutza espezifikoa beste testuinguruetara estrapolatzen da, hots, ezagutza hori orokorragoa bihurtzen da eta beste egoera batzuetan aplikagarria da.</p> <p>Beraz, ebatzi beharreko integrazio-egoera bat osatzeko proposatuko zaie ikasleei, eskuratu dituzten azken baliabide didaktikoak eta ematen zaizkien beste datu batzuk uztar ditzaten hura osatzeko prozesuan. Egoera erreal bat erabiliko da; esaterako, kasu honetan, errefuxiatuen gaia, gaur egun pil-pilean dagoen gaia izanik Ukraina eta Errusiako gerragatik. Egoera horietatik abiatuta, berriak, artikulatuak eta bestelako agiriak aurkeztuko zaizkie ikasleei horien egoera ulertzeko asmoarekin.</p> <p>Hortik abiatuta ikasleei eskatuko zaie imajinatzeko leku horietako ikasleak datozela eskolara. Ikasleek beste motatako galerak ezagutu ez ezik, enpatia eta kulturartekotasuna bezalako aspektuak kontutan hartu beharko dituzte arazo-egoera ebazteko.</p> <ul style="list-style-type: none"> ● Zer motatako galerak bizi ahal dituzte? (Askok familia-kideak galdu izan dituzte, beste batzuk lagunak, maskotak, etxea, haien herrialdea eta horrekin bat, haien bizimodua eta ohiturak). ● Nola sentituko dira? 			

	<ul style="list-style-type: none"> • Zer egin dezakezue seguru eta gustura sentiarazteko? Haien kultura ezagutzen hastea hasiera ona izango litzateke lagundu ahal izateko ez? <p>Ikasleek taldeka ikerketa-proiektu txiki bat egin beharko dute, iritsitako ikasle horiei laguntzeko gida bat sortzeko. Ondoren, guztien artean gutun bat idatzi beharko dute ikastetxeko helbidera, ikasle errefuxiatuak laguntzeko proposamenak jasotzen dituen.</p>
<p>Ebaluazioa</p>	<p>Ikasitakoa beste egoera batean aplikatzeko gai diren ebaluatuko da hurrengo irizpideak kontutan harturik:</p> <ul style="list-style-type: none"> <input type="checkbox"/> Errefuxiatuak jasan ditzakeen galerak identifikatu dituzte. <input type="checkbox"/> Eskolara iritsi berriekiko ulermena eta enpatia erakutsi dute. <input type="checkbox"/> Errefuxiatuen jatorrizko herrialdeari buruzko informazioa bilatzeko interesa agertu dute. <input type="checkbox"/> Elkarri entzun diote eta proposamenak jaso dira ikasle errefuxiatuei lagundu ahal izateko.

6.3. Eranskina: Esku-hartzearentzako Fitxak

6.3.1. Eranskina: Lehenengo Jarduerarako Fitxa

NOLA BEGIRATZEN DIOGU HERIOTZARI?

✓ Hitz hauetako zein lotuko zenituzke heriotzarekin? Aukeratu 4

- | | | |
|---------------|--------------|---------------|
| • Garezurra | • Tximeleta | • Gorrotoa |
| • Bakea | • Irribarrea | • Sufrimendua |
| • Maitasuna | • Argia | • Iluntasuna |
| • Lasaitasuna | • Itsuskeria | • Bizitza |

✓ Arrazoitu hautaketa. Azaldu zein irudi, sentimendu eta pentsamendu sortzen dizkizun heriotza hitzak.

IRUDIAK

SENTIMENDUAK

PENTSAMENDUAK

↑
MARGOZTEKO TOKIA
(NAHI IZATEKOTAN)



6.3.2. Eranskina: Lehenengo Jarduerarako Fitxa

Heriotzaren ilustratzaileak

Imajinatu ilustratzaile profesionala zarela eta heriotzari buruzko ilustrazio bat egiteko enkargua jasotzen duzula.

NONDIK HASIKO ZINATEKE?




- Pentsatu: hausnartu heriotzaren gaiari buruz eta erabaki nola adierazi zuretzat zer den.
- Zirriborratzea: bigarren urratsa ideia-zaparrada bat egitea da, eta, ondoren, obraren zirriborro bat egitea.
- Sortzea: behar dituzun materialak erabaki eta obra artistikoak garatu.

Obra bukatuta daukazunean, pentsatu eta idatzi obraren atzealdean zein etiketa edo hashtag # ondo laburbiltzen duen zure obra artistikoa.




6.3.3. Eranskina: Bigarren Jarduerarako Fitxa

BEHIN HERIOTZARI BURUZKO ERAKUSKETA IKUSITA, BETE ONDORENGO ORRIA:

<p>IKUSTEN DUT</p> 	<p>PENTSATZEN DUT</p> 	<p>GALDETZEN DIOT NEURE BURUARI</p> 
--	---	---

6.3.4. Eranskina: Bigarren Jarduerarako Fitxa


JAKES ETA HERIO IPUINA



LABURPENA

Jakesen ama gaixo dago, eta ez du sendabiderik: Herio ate-joka du. Jakes, mutiko azkarra denez, amarru bidez geldiaraziko du Herio. Hurrengo egunetan mundua arraro jokatzen hasiko da: jateko gutxiegi eta halere ia denetik gehiegi egonen da. Azkenean, Herio askatzea beste aukerarik ez dela ikasiko du Jakesek. Tabutik ihes egin eta zuzenean gai zail bezain ohiko bati heltzen dio liburu honek, gogoeta eragin eta sentsibiltate artistikoari kili-kili egin nahian.

6.3.5. Eranskina: Hirugarren Jarduerarako Fitxa



6.3.6. Eranskina: Laugarren Jarduerarako Fitxa

DOLUA		
FASEAK	DEFINIZIOA	ZEIN FASEETATIK PASA DA PROTAGONISTA?
UKAPENA		
SUMINDURA		
NEGOZIAZIOA		
ETSIPENA		
ONARPENA		

6.3.7. Eranskina: Laugarren Jarduerarako Ebaluazio Errubrika

EBALUAZIO ERRUBRIKA			
ITEM	3	2	1
DOLU KONTZEPTUA	DOLUAREN FASEEI BURUZKO INFORMAZIOA AURKITU DA ETA BIDEOIPUINEKO PROTAGONISTAREN FASEEKin EGOKI ALDERATU DA	DOLUAREN FASEEI BURUZKO INFORMAZIOA EGOKIA DA, BAINA EZ DA JAKIN PRAKTIKARA ERAMATEN	DOLUAREN FASEEI BURUZKO INFORMAZIO TEORIKOA ZEIN PRAKTIKOA EZ DA EGOKIA IZAN
IKT-EN ERABILERA	IKT-AK ERABILTZEKO TREBETASUNA ETA ARDURA ERAKUTSI DA	IKT-AK ERABILTZEKO TREBETASUN EDO ARDURA FALTA EGON DA	IKT-AK ERABILTZEKO TREBETASUNA ETA ARDURA EZ DA ERAKUTSI
TALDE LANA	TALDE KOHESIOA EGON DA, IKASKIDEEN IRITZIAK, ZALANTZAK ETA GALDERAK ENTZUNEZ ETA KONTUTAN HARTUZ	TALDE LANA AURRERA ERAMATEKO ZAILTASUNAK EGON DIREN ARREN, ULERKUNTZA BATETARA HELDU DA	TALDE LANA AURRERA ERAMATEKO ARAZO NABARMENAK EGON DIRA
DOLUA ETA HERIOTZA	DOLUA ETA HERIOTZA DESBERDINTZEKO GAITASUNA ERAKUTSI DA	DOLUA ETA HERIOTZA DESBERDINTZEKO ZAILTASUNAK EGON DIRA	DOLUA ETA HERIOTZA EZ DIRA DESBERDINDU

6.3.8. Eranskina: Zazpigarren Jarduerarako Irudiak

6.3.8.1. Eranskina: Ghana.



6.3.8.2. Eranskina: Mexiko.



6.3.8.3. Eranskina: Txina.



6.3.8.4. Eranskina: Bolivia.



6.3.9. Eranskina: Zazpigarren Jarduerarako Ebaluazio Errubrika

IRIZPIDEAK	3	2	1
Emandako informazioa	Gaiari buruz eskatutako informazioa dago. Informazioa ordenatuta dago eta erraz irakurtzen da.	Informazioa osatu gabe dago. Ordenatuta dago, baina ulertzea zaila da.	Informazioa ez da egokia, ez dator bat gaiarekin eta ez da ulertzen.
Irudiak	Irudi guztiak bat datoz mezuarekin, eta beharrezko dimentsioak dituzte.	Irudi batzuk ez dira argiak eta ez diote mezuari laguntzen.	Irudiek ez dute beharrezko dimentsiorik, neurriz kanpokoak dira eta ez dute mezuaren euskarririk.
Sormena eta talde lana	Koloreak, material ezberdinak edo teknikak erabili dira. Ideia nagusiak nabarmendu dituzte. Partaide guztiek parte hartu dute.	Ez dira ideia nagusiak nabarmendu eta ez dute denek parte hartu.	Posterra ez da erakargarria, ez dira ideia nagusiak nabarmendu eta pertsona batek egin du lan guztia.
Erakusketa edo azalpena	Eskatutako informazio guztia azaldu da eta kide guztiek dakite kartela azaltzen. Denek ezagutzen dute gaia eta galderak erantzuten dituzte.	Datu garrantzitsuak eman dira, baina kide guztiek ez dakite kartela azaltzen.	Ez zaio erreparatu eskatutako informazioari eta kide guztiek ez dakite kartela azaltzen.

6.3.10. Eranskina: Zortzigarren Jarduerarako Ebaluazio Errubrika

IRIZPIDEAK				
Edukia	Galera bat dago.			
	Galera heriotza izatekotan, kultura batetan kokatuta dago.			
	Doluaren faseak agertzen dira.			
	Emozioren bat ateratzen da.			
	Laguntzeko proposamenak islatu dira.			
Testuak eta elkarrizketak	Testuak eta elkarrizketak binetarako egokiak dira.			
Irudiak eta konposizioak	Irudiak ugariak eta egokiak dira, testuarekin lotutakoak. Konposizioa zuzena da eta binetetan aldatu egiten da.			
Sormena	Komikiaren multzoa erakargarria da, itxura zaindua du eta sortzailea da.			
Ortografia	Ez dago akats ortografikorik edo arinak dira.			